

Irantzu Lekuek, Zirikak eta Nuria Pérez-Cárcamok beren proiektu artistikoak aurkeztuko dituzte Montehermoson

Urriaren 16tik (ostirala) azaroaren 15era arte egongo dira ikusgai

Irantzu Lekuek, Miguel A. Hernándezek (Zirika) eta Nuria Pérez-Cárcamok beren proiektu artistikoak aurkeztuko dituzte Montehermoso kulturunean, bihurtik, urriak 16, azaroaren 15era arte, 2015eko Proiektu Artistikoen programaren barruan.

Proiektu artistikoak diruz laguntzeko hirugarren deialdia da, eta proiektuen produkzioa eta garapena bultzatuz hiriko artisten lana ezagutarazteko xedea du. Aurtengo deialdiak 22 eskabide jaso zituen, eta zazpi proiektu hautatu ziren; horien artean banatu dira aurtengo edizioari esleitutako 12.000 euroak, lortutako puntuazioaren arabera.

Proiektua garatzeko eta gastu orokorreari aurre egiteko zenbateko horrez gain, Montehermoso kulturuneak lanak jendaurrean erakusteko espazioak eta baliabide teknikoak eskaintzen ditu.

Poiektu hautatuak Montehermoso kulturunean erakutsiko dira, urteko laugarren lauhilabeteko programazioaren baitan.

IndiaSensations. Irantzu Lekue

Irantzu Lekue Arte Ederretan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta “Photospaña: teorías y proyectos artísticos” masterreko gradua du, besteak beste.

Hainbat diziplina lantzen ditu artistak, eta haren lanak lotura estua du esperientzia pertsonalekin edo gertukoenekin, horregatik oso espontaneo gertatzen da.

Gaur Montehermoson aurkeztzen duten proiektuan –IndiaSensations– artistak Indiara egindako bidaia batean izandako sentazioak eta sentimenduak biltzen ditu. Zenbait instalazioren bidez, gai sozialak ukitzen ditu, eta herrialde hartako gizarteaz, erritualez eta sinesmenez hausnartzen du.

Ikusleak batetik bestera ibiltzera eta zentzumenei erreparatzera gonbidatzen du ibilbideak, zeina irisgarritasuna errazteko modukoa baita. Usaintzera, begiratzera, baita ukitzera ere obra bakoitzaren ñabardurak sentitzeko.

“Hitz baten olerkiak”. Miguel A. Hernández (Zirika)

Zirika artista gasteiztarrek bide luzea joratu du hirian. Hasieran pintura lantzen bazuen ere, berehala hasi zen hiru dimentsioko objektuak erabiltzen, eta horrek instalaziora eraman zuen, argazkia bere esku-hartzeen euskarri dokumentala gisa baliatuz.

Naturak oso leku garrantzitsua hartzen du haren ibilbide pertsonal eta artistikoan, bai eta gaur aurkezten dugun proiektuan ere.

“Hitz baten olerkiak” naturatik eta naturarekin egindako poesia esperimentaleko proiektua da. Artista ikusizko poesiara hurbildu da.

Euskarazko hitzak erabiltzen ditu bertakotasuna eta aniztasuna aldarrikatzeko, pertsonak zein herriak kontsumitzaile huts bihurtu nahi dituen homogeneotasun globalaren aurka.

Argazkiez eta hiru dimentsioko piezez gain, Zirikak piezak osatzeko erabili dituen elementuak ere jarri dira erakusketan.

Naturalmente residuos. Nuria Pérez-Cárcamo.

Nuria Pérez-Carcamok hondakinen sorkuntzari buruzko hausnarketa proposatzen du.

Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederrak ikasten ari da, eta haren lanek naturarekiko interesa islatzen dute, zehazkiago, gizakia harekin erlazionatzen den moduarekikoa.

“Naturalmente residuos” proiektua osatzen duten piezek ezaugarri komun bat dute: horiek lantzeko hiri-hondakinak erabili ditu artistak. Hondakinak baliatzean, Nuriak birziklatzeaz eta objektu edo material batek izan ditzakeen erabilera edo bizitza ezberdinez hitz egiten digu.

Irantzu Lekue, Zirika y Nuria Pérez-Cárcamo presentan sus proyectos artísticos en Montehermoso

Las exposiciones se mostrarán desde mañana viernes 16 hasta el 15 de noviembre

Irantzu Lekue, Miguel A. Hernández (Zirika) y Nuria Pérez-Cárcamo presentan desde mañana 16 de octubre hasta el 15 de noviembre sus nuevas propuestas artísticas en el Centro Cultural Montehermoso, dentro del programa Proyectos Artísticos 2015.

Esta es la tercera edición de la convocatoria de Proyectos Artísticos, cuyo objetivo es hacer visible el trabajo de las y los artistas locales mediante el apoyo en la producción y difusión de sus proyectos. La convocatoria de este año recibió 22 solicitudes, siendo seleccionados siete proyectos, entre los cuales se ha distribuido, en función de la puntuación alcanzada, los 12.000 euros asignados a esta edición.

Además de esta cuantía económica para la producción y gastos generales del proyecto, el Centro Cultural Montehermoso aporta los espacios y recursos técnicos necesarios para su presentación pública

Los proyectos seleccionados se presentan en el Centro Cultural Montehermoso, formando parte de la programación del centro, en el último cuatrimestre del año.

IndiaSensations. Irantzu Lekue

Irantzu Lekue es licenciada en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco y graduada en el Master Photoespaña: teorías y proyectos artísticos, entre otros estudios

Artista multidisciplinar su trabajo esta relacionado con experiencias personales o cercanas, lo cual hace que sea muy espontáneo.

El proyecto que presenta hoy en Montehermoso, IndiaSensations, recoge las sensaciones y sentimientos experimentados por la artista en un viaje a India. La exposición se configura en torno a varias instalaciones a través de las cuales nos habla de temas sociales y reflexiona sobre la sociedad, rituales y creencias de este país.

El recorrido está planteado para favorecer la accesibilidad e invita al espectador a deambular y reparar en sus sentidos. A oler, mirar, escuchar e incluso tocar para sentir los matices de cada obra.

“Hitz baten olerkiak”. Miguel A. Hernández (Zirika)

Zirika es un artista gasteiztarra que cuenta con una larga trayectoria en nuestra ciudad. Aunque sus comienzos se enmarcan en torno a la pintura, pronto introduce objetos

tridimensionales en sus proyectos, lo que le lleva a evolucionar hacia la instalación como medio de presentar sus trabajos y la fotografía como soporte documental de sus intervenciones.

La naturaleza ocupa un lugar muy importante en su recorrido personal y artístico, tal y como se refleja en el proyecto que hoy presentamos.

“Hitz baten olerkiak” es un proyecto de poesía experimental desde la naturaleza, con la naturaleza. Un acercamiento del artista a la poesía visual.

Palabras en euskera para reivindicar lo local, lo diverso frente a la homogenización global de las personas y los pueblos como simples consumidores.

La exposición se compone de fotografías y piezas tridimensionales además de algunos de los elementos que Zirika ha utilizado en la elaboración de las piezas.

Naturalmente residuos. Nuria Pérez-Cárcamo.

Nuria Pérez-Carcamo nos presenta, a través de su proyecto, una reflexión sobre la generación de residuos.

Estudiante de Bellas Artes en la Universidad del País Vasco, sus trabajos reflejan el interés por la naturaleza y en concreto, la manera en que el ser humano se relaciona con ella.

“Naturalmente residuos”, el proyecto que presenta en Montehermoso, se compone de diferentes piezas con un común denominador: para su elaboración la artista ha utilizado residuos urbanos. Al utilizar estos residuos, Nuria nos habla del reciclaje y de los diferentes usos o vidas que puede llegar a tener un objeto, un material.